

### SARRERA

C1 Maila Tarteko mailaren eta maila Aurreratuaren hurrengoa da, eta aurrekoek duten araudi bera du oinarri (1629/06 Errege Dekretua eta LOEren 6.1 artikulua).

*Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia-marko Komuna: ikaskuntza, irakaskuntza, ebaluazioa (MCER) izenekoaren arabera, maila honen eta aurrekoen arteko desberdintasun handiena **komunikazio jario eta bat-batekoa** ahalbidetzen duen **hizkuntza-errepertorio zabala** barneratzea da. Komunikatzeko erraztasun handiagoa eskuratzeak, aurreko mailetan barneratutako mintzatzeko trebetasunetan oinarritua izan behar du.*

Maila honen beste oinarrietako bat ikaskuntzaren autonomia da, eta horrek altua izan behar du; izan ere, irakasleen jarraibideei segitzeaz gain, norberaren kontura aurrera egiteko behar beste tresna eta ezagupen dituzte. Ikasgelan praktika dezaketena ez da nahikoa izango; ikasleek eskura dituzten aukera guztiak bilatu eta baliatu beharko dituzte ikasgelan ikasitako trebetasunak garatzeko.

Maila honetan, ikasleak formaltasun maila txikiagoa erabiliz jarduteko gai izan behar du. Horrek ahozko kortesiarekin (biziagotzeko eta leuntzeko baliabideak, etab.) erlazonaturiko elkarrizketa-estrategiak menderatu behar ditu, eta elkarrizketa komunikatibo eta diskurtsiboen ezagupena eskatuko dioten formaltasun handiagoko egoeretan jarduten jakin behar du. Hori guztia lortzeko, funtzio-gaitasunaren eta adierazleen garapen maila handia behar da, eta esapide idiomatiko eta lagunartekoak jakin behar dira.

MCERek honela definitzen du maila hau: "*Ezagutza operatibo eraginkorra*" edo "*Ezagutza operatibo egokia*".

Hau da:

Hizkuntza bai hartzaile gisa bai sortzaile gisa erabiltzea, malgutasunez eta segurtasunez, edozein egoeratan, ahozko nahiz idatzizko testuak ulertzea eta sortzea, bai eta testu konplexuak ere, gai orokorrean edo interes pertsonalekoei buruz, egoeraren arabera hizkuntza-baliabide ugari erabilita, eta ahoskera erlaxatuak nahiz azentu desberdinak ulertzea, bai eta zarata dagoen inguruan ere.

## HELBURU OROKORRAK

### Zein dira C1 mailako helburu orokorrak?

- Mota guztietako trukeak egitea, zailak eta konplexuak izan arren.
- Elkarrekintza sozial, akademiko edo profesionalean parte hartzea eta ekimenez jokatzea.

- Mota guztietako ahozko testu edo testu idatziekin moldatzea, egoera eta gaia zeinahi direla.
- Hizkuntzaren ikaskuntza kontzientziaz eta modu autonomoan kudeatzea.
- Norberaren ikaskuntza-prozesua planifikatzea, eskueran dauden baliabideei ahalik eta etekin handiena ateraz.
- Ikaskuntza-prozesuan estrategia berriak garatzea eta hizkuntza norberaren ekimenez erabiltzea.

## HELBURU ZEHATZAK

### Zein dira C1 mailako helburu zehatzak?

#### ***Ahozko eta idatzizko elkarreragina***

- Arin eta natural hitz egitea, ia ahaleginik egin gabe, esapide egokiak bilatzeko ageriko ahalegin handirik egin gabe.
- Hiztegi zabala jakitea, itzulginguruka ibilita gabeziak erraz gainditzeko beste. Kontzeptualki zaila den gai batek baino ezin du eragotzi diskurtso jario eta naturala.
- Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzea gizarte eta lan arloko helburuetan.
- Ideiak eta iritziak zehaztasunez adieraztea eta norberaren interbentzioak gainerako solaskideen interbentzioekin trebeziaz lotzea.

#### ***Entzumena***

- Testu luzeak ulertzea, baita argi egituratu gabe daudenean ere.
- Diskurtso baten komunikazio-asmoak ulertzea, harremana inplizitua denean eta esplizituki adierazten ez denean.
- Ahalegin berezirik gabe filmak eta telebistako saioak ulertzea.

#### ***Irakurmena***

- Literatura-testu luze eta konplexuak ulertzea, baita gizarte, lan eta hezkuntza arloan aurkitu daitezkeenak ere.
- Jarrera eta iritzi inplizitu nahiz esplizituak hartzen dituzten xehetasunak identifikatzea.
- Estilo desberdinak bereiztea.
- Artikulu espezializatuak ulertzea, baita bere espezialitatearekin zerikusirik ez dutenak ere.
- Jarraibide tekniko luzeak ulertzea eta haiei jarraitzea, bere espezialitatearekin zerikusirik ez izan arren, eta atal zailenak berriro irakurtzeko aukera edukita.

#### ***Mintzamena***

- Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzea helburu sozialekin, erabilera emozionala, alusiboa eta dibertigarria barne.
- Gai konplexuei buruz aurkezpen argi eta zehatzak egitea.
- Aurkezpenetan bigarren mailako gaiak sartzea.
- Ideia konkretuak garatzea, eta ondorio egoki batekin amaitzea.

### **Idazmena**

- Testu argi eta ondo egituratuak idaztea, norberaren ikuspuntua luze adierazita.
- Gai konplexuei buruzko gutunak, txostenak eta idatziak idaztea, alderdi garrantzitsuenak azpimarratuz.
- Estilo egokia aukeratzea, idazgaiaren eta irakurleen arabera.

### **Gaitasun soziokulturala eta soziolinguistikoa**

- Esapide idiomatiko eta lagunarteko ugari ezagutzea, eta erregistro aldaketak hautematea, noizean behin xehetasunak berretsi behar baditu ere, batez ere doinua ezezaguna bada.
- Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzea, helburu emozional, alusibo eta umoretsuekin.
- Argot eta hizkuntza-erabileraren maila altua erabiltzen duten filmak ulertzea.

### **Hizkuntza-gaitasuna**

- Argi adierazteko hizkuntza-elementuak egoki formulatzea, zer esan nahi den mugatu behar izan gabe.
- Itzulinguruen bidez gabeziak gainditzea ahalbidetuko dion hiztegi zabala edukitzea eta ondo ezagutzea, garrantzi txikiko hutsegiteren bat eduki arren.
- Saihesteko estrategiak erabiltzea, baina nabarmen geratu gabe.
- Esapide idiomatikoak eta lagunartekoak ondo ezagutzea.
- Gramatika zuzentasun handia edukitzea, modu tinkoan.
- Intonazioa aldatzea eta esaldiaren enfasia behar den lekuan kokatzea, esanahia duten xehetasunak adierazteko.
- Egitura eta paragrafoetako banaketa modu praktikoan menderatzea, eta puntuazioa eta ortografia zuzen erabiltzea, noizean behingo hutsegiteren batekin.

### **Gaitasun estrategikoa**

- Hizkuntzaren ikaskuntza kontzientziaz eta modu autonomoan kudeatzea.
- Programa norberaren helburuak eta taldearenak (xedea, edukiak, metodologia eta ebaluazioa) kontuan hartuta negoziatzea.
- Norberaren ikaskuntza-prozesua planifikatzea, eskueran dauden baliabideei ahalik eta etekin handiena ateraz (denbora eta espazioa, kontsulta-iturriak, irakaskuntza-materiala, etab.).
- Ikaskuntza-prozesuan estrategia berriak garatzea eta hizkuntza norberaren ekimenez erabiltzea.
- Ikaskuntza-prozesuan eragiten duten faktore psikoafektiboak kontzienteki kontrolatzea.
- Norberaren ekimenez, taldekideen artean lankidetzaz, adiskidetasun- eta konfiantza-giroa sortzea eta hari eustea.

### **Zein dira C1 mailako jarduera komunikatiboak?**

Ahoz eta idatziz komunikatzeko gaitasuna garatzea. Gaitasun hori erabiliz baino ez da garatzen.

### ***Entzumena lantzeko ariketak***

#### **A. Elkarrekintzan**

- Elkarrizketa konplexuei erraz jarraitzea, bai eta hirugarren pertsonenak ere.
- Eztabaida-taldeetan parte hartzea, bai eta gai abstraktu, konplexu eta ezezagunei buruzkoetan ere.
- Hainbat esapide idiomatiko eta lagunarteko ezagutzea.
- Erregistro-aldaketak hautematea, eta haietara egokitzea.
- Jarraibide tekniko luzeei jarraitzea, bere espezialitatekoak izan ez arren.
- Informazioak eta iritziak trukitzea, egiaztatzea eta berrestea.
- Edozein gai motaren inguruan segurtasunez jardutea.
- Komunikazio-asmoak hautematea eta haiek erabiltzen jakitea: pausak, etenak, doinua, intonazioa, mugimenduak eta keinuak.

#### **B. Entzule gisa**

#### **Hizketaldiak eta eztabaidak**

- Bere espezialitatekoak ez diren gai abstraktu eta konplexuko diskurtsoei jarraitzea, nahiz eta xehetasunen bat egiaztatu behar izango duen, batez ere azentua ondo ezagutzen ez badu.

#### **Kontaktak, deskribapenak eta azalpenak**

- Hitzaldi, eztabaida eta debate gehienak erraz samar ulertzea.
- Hitzaldi batean ohar zehatzak hartzea.

#### **Iragarkiak eta argibideak**

- Adierazpen publikoetatik informazio zehatza ateratzea, kalitate txikian eta soinua distortsionatuta (geltoki batean).
- Jarraibide tekniko luze eta konplexuak eta produktuen eta zerbitzuen zehaztapenak ulertzea.

#### **Emankizunak eta grabatutako materiala**

- Grabatutako eta transmititutako material ugari ulertzea, ohiz kanpoko erabileraren bat barne, eta solaskideen artean xehetasunak hautematea, jarrerak eta harreman inplizituak, kasu.
- Argota edo lagunarteko mintzaira eta esapide idiomatikoak erabiltzen dituzten filmak ulertzea.

### ***Irakurmena lantzeko ariketak***

#### **A. Elkarrekintzan: gutunak eta oharrak**

- Edozein gutun, ohar, mezu elektronikoa, SMS, fax, eta abar zehatz-mehatz ulertzea, bai eremu pertsonalean, bai akademikoan, bai profesionalean, noizean behin hiztegia erabilia.
- Solaskidearen formaltasun edo hurbiltasun maila hautematea kortesiako formulen, informazioaren eta erregistroaren arabera, eta erantzunetan aplikatzea.

## **B. Irakurle gisa**

### **Orientabidea eta informazioa**

- Testu luzeetan informazio zehatza aurkitzea eta jatorri ezberdinetatik datorren informazioa biltzea lan jakin bat burutzeko.
- Oso gai espezializatuak ez diren berrien, artikuluen, txostenen eta iragarkien edukia azkar identifikatzea.

#### *Argudioak*

- Testu luze eta konplexuak zehatz-mehatz ulertzea, bai bizimodu sozialari, bai profesionalari, bai akademikoari dagozkionak.
- Jarrera eta iritzi inplizitu nahiz esplizituak hartzen dituzten xehetasunak identifikatzea.

#### *Argibideak*

- Makinei eta prozedura berriei buruzko jarraibide luzeak zehatz-mehatz ulertzea, norberaren espezialitatekoak direnean zein ez direnean, eta atal zailenak berriro irakurtzeko aukerarik badauka.

#### *Dibertimenduzko irakurketa*

- Gai unibertsalei buruzko egungo testu literarioetako argumentua, atal nagusiak eta bigarren mailakoak, pertsonaien ezaugarriak eta gaia ulertzea, esapide idiomatikoak edo lagunartekoak eduki arren.
- Testua dagokion ezaugarri kulturalen barruan interpretatzea.

### ***Mintzamina lantzeko ariketak***

#### **A. Elkarrekintzan**

##### **Elkarrekintza orokorra**

- Jatorrizko hitzuneekin elkarrizketa konplexuetan jardutea, bai eta gai abstraktu, konplexu eta ezezagunei buruz ere, jario handiarekin eta ia ahaleginik egin gabe.
- Garrantzitsuak iruditzen zaizkion gertakariak eta iritziak intonazioaren bidez, hiztegi egokia erabiliz, interjekzioen eta abarren bidez azpimarratzea.

## **Hizketaldiak eta eztabaidak**

- Jatorrizko hitzuneekin zehatz eta jario handiarekin hitz egitea, ia ahaleginik egin gabe eta esanahia duten xehetasunak helaraziz.
- Berarentzat hainbat gaik eta esperientziak duten garrantzia eta horrek eragiten dion emozioa helaraztea.
- Harridura, poza, pena, interesa, axolagabetasuna eta bestelako sentimenduak adieraztea, eta halakoei erantzutea.
- Gai bati buruzko ikuspuntua azaltzea, hainbat aukeraren alde onak eta txarrak azalduz.
- Argumentuak argi garatzea, luze azalduta eta ideia osagarriak eta adibide egokiak erabiliz.
- Gainerako solaskideen ikuspuntuei eta argumentuei buruzko iruzkinak egitea.

## *Negoiazioak*

- Egoera zail eta konplexuetan, zailtasunak agertu arren, trebeziak moldatzea, eta beste batzuei laguntzea.
- Asebetetze edo atsekabe maila ñabardurekin adieraztea eta balorazio egokiak egitea, egindako trukeetan azpimarratzekoak diren alderdiak zehaztuz.
- Egoera ez-ohikoak konpontzea, denda, banku, eta abarretan, esaterako erosketaren bat itzultzea.
- Zerbait nola egin azaltzeko jarraibide zehatzak ematea, bai eta luzeak ere.
- Iturri desberdinetako argudioak eta informazioa laburtzea txostenak egiteko.

## *Elkarrizketak*

- Elkarrizketa bateko galderari, kontsulta bati, eta abarri bat-batean eta ia ahaleginik gabe erantzutea.
- Elkarrizketa batean ideiak garatzea eta ekimenez jokatzeko.
- Egoeran behar den hurbiltasuna edo formaltasuna mantentzea.

## **Hitzaldia kontrolatzea**

- Hizketakideek ulertu dutela ziurtatzea.
- Ulertu dela egiaztatzea errepikatuz, birformulatuz edo parafraasi bidez.
- Baliabide desberdinen bitartez esanahiak argitzea.
- Informazioa egiaztatzea edo ezeztatzea. Informazioa zuzentzea.
- Nork bere burua zuzentzea.

## **B. Hizlari gisa**

### **Deskribatzea eta kontatzea**

- Gai konplexuei buruz deskribapen eta aurkezpen argiak eta zehatzak egitea, beste gai batzuk ere tartekatuz.
- Ideia konketuak garatzea, eta ondorio egoki batekin amaitzea.
- Kontaketa konplexuak egitea beste gai batzuk tartekatuz, alderdi zehatzak garatuz eta behar bezala bukatuz.

- Denbora- eta logika-koherentzia mantentzea, eta beharrezko informazio nahikoa ematea.
- Ideiak lotzeko lokailu eta diskurtso-markatzaileak malgutasunez erabiltzea.

### **Jendeari zuzentzea**

- Adierazpenak jario handiarekin egitea, ia ahaleginik gabe, nolabaiteko intonazioa erabiliz esanahiaren ñabardurak zehazteko.
- Gai konplexu bati buruzko aurkezpen argiak eta ondo egituratuak egitea, luze azalduta eta egokiak diren ikuspuntu, arrazoi eta adibide osagarriak emanez.
- Diskurtso-markatzaileak ongi erabiltzea.
- Bat-batean erantzutea eta ia ahaleginik gabe.

### **Idazmena lantzeko ariketak**

#### *Elkarrekintzan*

- Gai konplexuei buruzko azalpen argiak eta ongi egituratuak idaztea, ideia nagusiak azpimarratuz.
- Ikuspuntuak, egokiak diren ideia, arrazoi eta adibide osagarriekin luze defendatzea.
- Ohar informatiboak idaztea edo inguruko pertsoneri (kideei, irakasleei eta abarri) berehalako azalpenak eskatzea, garrantzitsuena nabarmenduz.
- Mezu elektronikoa eta SMSak idaztea.
- Gutun formalak eta komertzialak idaztea.

#### *Sortzea*

- Deskribapenak eta alegiazko testuak argi, zehatz eta ongi egituratuta idaztea, era sinesgarri, pertsonal eta naturalean, xede diren irakurleei egokituta.
- Ikuspuntu zehatz baten alde edo aurka idaztea, argudioak emanez eta aukera ugariaren abantailak eta desabantailak azalduz.
- Iturri askotako informazioa eta argudioak laburtzea.
- Film, liburu edo antzezlan baten berri laburra idaztea.

### **Nolako testuak irakurri, entzun eta sortuko dituzte?**

#### **Ahozko testuak**

##### *Elkarrekintzan*

- Aurrez aurre hitz egitea, era informal eta formalean, gai abstraktu, konplexu eta ezezagunei buruz.
- Interes orokorreko negoziazioak.
- Telefonoz hitz egitea, era formal eta informalean.
- Ikuspuntuak trukitzea.
- Gatazkak konpontzea.
- Aurrez aurre mota guztietako trukeak egitea.
- Ondasunak edo zerbitzuak eskuratzea.
- Ziurtagiriak lortzea (bizilekuarena, medikuarena, etab.).
- Telefonoz hitz eginez trukeak egitea, bai eta zailenak ere.

- Nolabaiteko konplexutasuna duten eztabaida publikoak egitea, arlo pertsonalekoak nahiz hezkuntza edo lanbide arlokoak.
- Elkarrizketak (lanekoak, ikasketetakoak, etab.), elkarrizketatzaile edo elkarrizketatu gisa.
- Argibide publiko luzeak.
- Espezialitateari loturiko gaiei buruzko hitzaldiak bilera formal oso egituratuetan.
- Gai konplexuei buruzko aurkezpen publiko luzeak (proiektuak, txostenak, esperientziak, etab.).

## **Entzule gisa**

Bertan egonik

- Gai abstraktuei buruzko hitzaldi luzeak, espezialitatekoak zein ez.
- Hitzaldi luzeak (aurkezpenak, ekitaldi formalak, etab.).
- Mahai-inguru eta aurkezpen publiko luzeak, espezialitateko gaiei buruzkoak zein ez.
- Era guztietako antzezpenak.
- Hizketakide askoren arteko hizketaldiak.
- Txistekak.
- Elizako sermoiak.

Telebistaz emandako edo grabatutako materiala.

- Argibide publiko luzeak.
- Telebistaz edo irratiz emandako era guztietako berriak.
- Mota guztietako filmak.
- Irratiko edo telebistako dokumentalak.
- Abestien hitzak.
- Iragarkiak telebistan eta irratan.
- Erantzungailuan grabatutako argibideak eta mezuak.

## **Sortzea**

- Gai abstraktuei eta konplexuei buruzko azalpenak.
- Oharrak, jarraibideak, arauak, aholkuak eta debekuak, luzeak izan arren.
- Gertaerak, esperientziak, bitxikeriak eta proiektuak zehatz azaltzea.
- Istorioak kontatzea.
- Bere espezialitateko ideiak eta jarduerak azaltzea, arrazoitzea eta argudiatzea.
- Arazo bat azaltzea.
- Ekitaldiak, liburuak, filmak edo pertsonak aurkeztea.
- Liburuak, telebista programak eta filmak baloratzea.

## ***Testu idatziak***

### **Elkarrekintza**

- Gutunak, faxak, mezu elektroniko zail eta luzeak, komertzialak edo lanbidekoak.

- Foro birtualetan mezuak (blog-ak).
- Txatak.
- Kontratu errazak (lanekoak, alokairukoak).
- Argibide publiko luzeak.

### **Ulermena**

- Ondorio soziokulturaleko publizitate iragarkiak.
- Iritzi-artikuluak espezializatutako aldizkarietan.
- Bere espezialitateari loturiko gai ei buruzko txosten luze eta zailak.
- Era guztietako web orrialdeak.
- Testu-liburuak.
- Thesaurus-ak.
- Eleberriak eta ipuinak.
- Mota guztietako antzezlanak.
- Poema zailak.
- Txistek.
- Komikiak.
- Filmen, liburuen edo antzezlanen berri laburrak.

### **Sortzea**

- Tarteko luzera duten lanbide jiteko txostenak (proiektu baten garapena) edo gai abstraktuei buruzkoak (ikuspuntu bat defendatzea).
- Gutunak, faxak, mezu elektroniko zail eta luzeak, komertzialak edo lanbidekoak.
- Argibide publiko luzeak.
- Foro birtualetako mezuak. Txatak.
- Filmen, eleberrien edo antzezlanen berri laburrak.
- Eskolako lanak (eskolan edo kanpoan idatzitako idazlanak).
- Txistek.

### **Zer egitura gramatikal ikasiko dituzte?**

#### **GRAMATIKAKO EDUKIAK**

##### **PERPAUS BAKUNA**

Aurreko mailan landutako forma guztien berrikusketa orokorra, eta kasu berrietarako hurbilketa.

##### **PERPAUS KONPOSATUA**

Aurreko mailan landutako forma guztien berrikusketa orokorra, eta kasu berrietarako hurbilketa.

- Perpaus koordinatuak.
- Mendeko perpausak.
  - Perpaus motak.
    - Subjektu-perpausak.
      - Subjektu-perpausetan erabiltzen diren juntagailuak eta juntadura-hitzak.
    - Perpaus osagarriak.

- Perpaus osagarrietan erabilitako juntagailuak eta juntadura-hitzak: *чтобы, кто, что, какой, чей, сколько, где, куда, откуда, когда, как, почему, зачем, ли.*
- Perpaus determinatzaileak.
- Perpaus determinatzaileetan erabiltzen diren juntagailuak eta juntadura-hitzak: *что, чтобы, который, какой, чей, где, куда, откуда, когда.*
- Denbora-perpausak:
  - aurrekotasuna: *перед тем как, до того как, пока не;*
  - gerokotasuna: *после того как, когда;*
  - aldiberekotasuna: *когда, пока.*
- Helburu-perpausak eta *чтобы, с целью чтобы, для того чтобы, с тем чтобы* juntagailuak.
- Moduzko perpausak eta *как, что, чтобы* juntagailuak.
- Konparazio eta kantitate perpausak eta *настолько..., что; насколько, сколько, так..., как; будто, как будто; чем..., тем* juntagailuak eta juntagailu-hitzak.
- Baldintzako perpausak eta *если, если... то (так, тут, тогда), когда, если бы, в случае если, при условии если, на случай если, или, раз; ... так ...* juntagailuak. .
- Kausazko perpausak eta *потому что, так как, поскольку, потому как, ведь, ради того что, в связи с тем что, оттого что, из-за того что, благодаря тому что, ради того что, ввиду того что, в силу того что, в связи с тем что, под видом того что, под предлогом того что, тем более что* juntagailuak.
- Ondorio-perpausak eta *значит, следовательно, таким образом, так что, итак, независимо от того что, мало того что..., так ещё* juntagailuak.
- Kontzesiozko perpausak eta *хотя (хоть), пусть, пускай, зато, тем не менее, однако, независимо от того что, несмотря на то что, притом что, вопреки тому что, что (бы) ни, чего бы ни, кто (бы) ни, какой бы ни, сколько бы ни, где бы ни, как ни, куда ни, когда ни, сколько (бы) ни, ли... ли, либо* juntagailuak.
- Mendeko perpausak juntagailurik gabe (lagunarteko erabilera).
- Estilo zuzena eta zeharkakoa.
  - Estilo zuzena zehar-estilo bihurtzea.
    - Zeharkako juntagailuak: *что, чтобы, где, когда, сколько, почему, ли.*

## IZENAK ETA ADJEKTIBOAK

Aurreko mailan landutako forma guztien berrikusketa orokorra, eta kasu berrietarako hurbilketa.

- Izena.
  - Generoa.
  - Numeroa.
  - Kasua.
  - Modifikatzaileak.
    - Aurrizki nagusien aurkezpena.
    - Atzizki nagusien aurkezpena.
    - Artizkiak izen elkartuetan: -o-, -e-.
- Izen propioak adjektibo bihurtzea.

- Adjektiboa
  - Generoa.
  - Numeroa.
  - Kasua.
  - Motak.
  - Gradua.
    - Positiboa.
    - Konparatiboa.
    - Superlatiboa.
  - Forma.
    - Luzea.
    - Laburra.
  - Modifikatzaileak.
    - Aurrizki nagusien aurkezpena.
    - Atzizki nagusien aurkezpena.
    - Artizkiak adjektibo elkartuetan: -o-, -e-.
  - Izen propioak adjektibo bihurtzea.

#### DETERMINATZAILEAK

Aurreko mailan landutako forma guztien berrikusketa orokorra, eta kasu berrietarako hurbilketa.

- Zenbatzaileak.
  - Zenbatzaile kardinalak.
    - Deklinabidea.
  - Zenbatzaile ordinalak.
    - Deklinabidea.
  - Zenbatzaile multzokariak.
    - Deklinabidea.
  - Zenbatzaile partitiboak.
    - Deklinabidea.
- Kuantifikatzaileak.

#### IZENORDAINAK

Aurreko mailan landutako forma guztien berrikusketa orokorra, eta kasu berrietarako hurbilketa.

- Pertsona izenordainak.
  - Deklinabidea.
- себя izenordain bihurkaria.
- Edutezko izenordainak.
  - Deklinabidea.
- Izenordain erakusleak.
  - Deklinabidea.
- Izenordain determinatzaileak.
  - Deklinabidea.
- Izenordain galdetzaileak.
  - Deklinabidea.
- Izenordain negatiboak.
  - Deklinabidea.
- Izenordain zehaztugabeak.
  - Deklinabidea.

## ADITZA

Aurreko mailan landutako forma guztien berrikusketa orokorra, eta kasu berrietarako hurbilketa.

- Iragankortasuna eta iragangaiztasuna.
- Modua.
  - Indikatiboa.
  - Agintera.
  - Baldintzazkoa edo subjuntiboa.
- Aspektua.
  - Burutugabea.
  - Burutua.
- Denbora.
  - Indikatiboaren aditz-denborak.
    - Orainaldia.
    - Lehenaldia.
    - Etorkizun sinplea.
    - Etorkizun konposatua.
- Boza.
  - Aktiboa.
  - Pasiboa.
- Mugimendu-aditzak.
  - Aurrizkirik gabe.
  - Aurrizkiekin.
- –ся partikuladun aditzak.
- Aditzaren forma ez-pertsonalak.
  - Infinitiboa.
  - Partizipioa.
    - Denbora.
      - Orainaldia.
      - Lehenaldia.
    - Boza.
      - Aktiboa.
      - Pasiboa.
    - Aspektua.
      - Burutugabea.
      - Burutua.
    - Forma.
      - osoa.
      - laburra.
    - Partizipioen deklinabidea.
    - Partizipiodun esaldia.
    - Partizipioak izenondo eta izen bihurtzea.
  - Gerundioa.
    - Aspektua.
      - Burutugabea.
      - Burutua.
    - Gerundio-perpausak.
      - Mendeko perpausak, gerundiodun esaldiaren orde.
  - Aditz-aurrizkien balio nagusietarako hurbilketa.

- Aditz-atzizkien balio nagusietarako hurbilketa.

## ADBERBIOA

Aurreko mailetan landutako forma guztien berrikusketa orokorra, eta kasu berrietarako hurbilketa.

- Motak.
- Gradua.
  - Positiboa.
  - Konparatiboa.
  - Superlatiboa.
- Predikazio-aditzondoak.
- Ezezko adberbioak.
- Galdera-aditzondoak eta erlatiboak.
- Adberbio erakusleak.
- Adberbio-lokuzioak.
- Adberbioak adjektibo bihurtzea.

## LOKAILUAK

Aurreko mailan landutako forma guztien berrikusketa orokorra, eta kasu berrietarako hurbilketa.

- Preposizioak eta preposizio-lokuzioak.
  - Motak.
- Juntagailuak eta juntadura-lokuzioak.
  - Azalpen-juntagailuak.
  - Juntagailu adbertsatiboak.
  - Juntagailu hautakariak.
  - Loturazko juntagailuak.
  - Atribuzio-juntagailuak.
  - Kontzesiozko juntagailuak.
  - Konparaziozko juntagailuak.
  - Baldintza-juntagailuak.
  - Kausazko juntagailuak.
  - Helburuzko juntagailuak.
  - Emaidza-juntagailuak.
  - Denbora-juntagailuak:
    - aurrekotasuna;
    - ondokotasuna;
    - aldiberekotasuna.
  - *что* eta *чтобы* juntagailuen erabilera.
  - Juntagailuen erabilera lagunarteko estiloan.
  - Zeharkako juntagailuak: *что, чтобы, где, когда, сколько, почему, ли.*
- Partikulak.
- Interjekzioak.

## DISKURTSOA

Aurreko mailan landutako forma guztien berrikusketa orokorra, eta kasu berrietarako hurbilketa.

- Diskurtso-antolatzaileak.
  - adostasuna.
  - erabateko desadostasuna (*скажешь тоже!; и очень жаль!*).

- ustekabea (*надо же!*).
- ustekabe-eza (*фильм как фильм; это же Япония!*).
- erantzun zehaztugabea (*да так...*).
- erabateko debekua (*никаких песен*).
- informazioaren zehaztasuna.
- kontzesioa.
- kantitate zehaztugabea (*мало кто; мало что*).
- zerbaiten presentzia.
- zerbaiten gabezia.
- onespen-eza (*а ещё*).
- zalantza (*вряд ли; а, ничего*).
- uko egitea (*ещё чего*).
- arauarekiko koherentziarik eza (*не дом, а стадион какой-то*).
- egoera formalak.
- Diskurtsoa antolatzekeo baliabideak.
  - diskurtsoa hastea.
  - informazio ezaguna (denentzat) helaraztea.
  - informazioa gehitzea.
  - diskurtso barruan gaia aldatzea.
  - diskurtsoa bukatzea.
  - indartzea.
- Baliabide sintaktikoak.
  - Errepikatzea.
    - Aukera aniztuneko datiboa (*и тебе торт, и пирожные...*).
    - Erabateko ziurtasuna adierazteko izenordain galdetzaileak (*уж кто-кто, а он-то помнит*).
  - Hurrenkera.
    - Egiturak:
      - kezka.
      - onespen-eza.
      - egoera desberdintzeko (*для кого как; смотря какая*).
      - konparazioa (*не то что некоторым; ты прямо гений*).
      - ziurgabetasuna.
      - informazioaren zehaztasuna.
      - adostasuna.
      - iritzi eszeptikoa.
      - zerbaiten presentzia.
      - zerbaiten gabezia.
      - kontzesioa.
      - erabateko ziurtasuna.
      - egoerak desberdintzeko.
      - kontzesioa.
      - gaitzespena (*нет, чтобы...*).
      - egoera formalak.
      - egitura enfatikoetan.
    - Elipsiak.
      - izenarena.
      - aditzarena.
  - Aditz-denboren koherentzia.
  - Ohiko lokailuak.

## LEXIKOA ETA SEMANTIKA

Aurreko mailan landutako forma guztien berrikusketa orokorra, eta kasu berrietarako hurbilketa.

- Landutako egoeren hiztegia.
- Hitz-familiak.
  - lexemak: *-ключ-, -печ-, -стаж-, -смотр-, -вид-*.
- Esanahi antzeko hitzak.
- Sinonimoak eta antonimoak.
- Hitz eta esaera arkaikoak eta horien erabilera errusiera modernoan.
- Atzerriko hitzak:
  - hizkuntza arkaikoetakoak (klasikoak):
    - kultismoak (greziera zaharra, latina).
  - hizkuntza modernoetakoak:
    - ekialdekoak (turkiera).
    - mendebaldekoak:
      - galizismoak.
      - anglizismoak.
      - germanismoak.
- Sasiadiskideak.
- Formula topikoak.
  - folklore errusiarrekoak.
  - egoera formaletakoak.
- Zenbait adierazpen idiomatiko.

## FONOLOGIA ETA ORTOGRAFIA

Aurreko mailan landutako forma guztien berrikusketa orokorra, eta kasu berrietarako hurbilketa.

- Fonologia.
  - Talde fonikoak: intonazioa (jarraipena).
    - Ahozko hizkuntzaren intonazioa (erregistro informala).
  - Prozesu fonologikoak (jarraipena).
    - Ahozko hizkuntzaren prozesu fonologikoak (erregistro informala).
- Ortografia.
  - Karaktereen erabilera hainbat formatan (letra larriak, xeheak, etzanak, etab.).
    - Ortografia-zeinuak.
    - Ohiko erabilerako zeinuak.
- Laburdurak eta siglak.
- Puntuazioa.
  - Puntuazio-zeinuak (puntua, koma, bi puntu, puntu eta koma, parentesia, kakotxak, marratxoa, marra).
  - Zehar-estiloko puntuazioa.
  - Perpaus bakunen eta konposatuen puntuazioa.
  - Puntuazioa egituretan:
    - erregistro formalean.
    - erregistro neutralean.
    - erregistro informalean.
    - enfatikoak.

## **Zer komunikazio-estrategia ikasiko dituzte?**

### ***Entzumenerako eta irakurmenerako estrategiak***

#### Planifikatzea

- Beren ezagutzak eta bizipenak aktibatzea irakurri edo entzungo dutena aurreikusteko.
- Mezuak ongi ulertzeko baikorrak izatea.
- Edukiari eta antolakuntzari buruzko hipotesiak sortzea testuinguruaren eta formaren arabera.
- Kontzeptuak ekartzearen eta hizkuntzen arteko ulermeneko prozeduren baliagarritasuna onartzea.
- Testuak osotasunean ulertzeko gaitasuna onartzea, testuko elementu bakoitza ulertzearen beharrik gabe.

#### Burutzea

- Lehenik eta behin, zentzu osoa ulertzen saiatzea eta gero, puntu zehatzetan gelditzea. Datu zehatzak bakarrik bilatzea, helburua hori bada.
- Hizkuntzaz gaindiko elementuei eta hizkuntzaz kanpoko elementuei (irudiak, testu baten formaren mapa, intonazioa, keinuak, tonua, etab.) arreta eskaintzea.
- Gai orokorrei dagokienez, testu edo enuntziatu baten zentzu orokorra hartzea hitz ezezagunen litekeen esanahia asmatzeko.
- Testu edo diskurtso baten gaia eta hitz ezezagunen esanahia asmatzea, egoera edo testuingurutik abiatuta.
- Diskurtsoaren zati bakoitzaren garrantzia ondorioztatzea.

#### Ebaluatzea

- Hipotesiak egiaztatzea eta zuzentzea.
- Ulertzen ez dutena adieraztea.
- Mezua argitzeko eskatzea, edo mezua argitzen saiatzea.
- Irakurgaiak dakartzan beharren asebetetzea baloratzea.
- Irakurgaiako ulermen-aurrerapenak baloratzea.

### ***Mintzamenerako eta idazmenerako estrategiak***

#### Planifikatzea

- Puntu nagusiak nola komunikatuko diren aurreikustea eta saiakerak egitea.
- Hizketakideak kontuan hartzea, bai edukia prestatzean, bai eta forma prestatzean ere.
- Baliabideak kokatzea.
- Lana egokitzea.

#### Burutzea

- Aurreko ezagutzei etekina ateratzea.
- Beste hitz batzuekin adieraztea.
- Egoera zehatzera egokitzeko arreta jartzea. Edukia antolatzea; eskemak egitea. Hainbat diskurtsoren egitura jakitea.

- Ereduak begiratzea.
- Beharrezko baliabide linguistikoak kokatzea eta horietaz baliatzea.
- Gabeziaren bat osatzeko antzeko esanahia duten hitzak bilatzea.
- Analogiaren bidez hitzak sortzea.
- Parafraasiak erabiltzea edo hitz bat buruan ez dutenean berori definitzea.
- Komunikazioa eteten bada, modu ezberdinean berriro hastea.
- Zalantza badu, baieztapena eskatzea.
- Hainbat baliabiderek zailtasunei aurre egitea.
- Hainbat saiakera egin eta prozesua baloratzea.
- Zuzenketarekin edo egokitzapenarekin zalantzan badaude, interrogazio-keinuak erabiltzea.

Ebaluatzea eta zuzentzea.

- Ulertu dela ziurtatzea edo baloratzea.
- Gaizki-ulertuak zuzentzea.
- Helburuen, antolakuntzaren, zuzenketen, eta abarren lorpena baloratzeko berriz irakurtzea.
- Beste hizkuntza batean idaztean gozatzea.
- Hizkuntza berrian modu pertsonalean adierazten ahalegintzea.

### ***Ahozko eta idatzizko elkarrekintzetarako estrategiak.***

Planifikatzea

- Komunikazio-beharrak asetzeko eta beste pertsona batzuekin elkar-ulertzeko hizkuntza batean adierazteko gaitasunaren garrantzia onartzea.
- Jatorrizko hitzuneekin komunikatzeko interesa izatea, ahoz nahiz idatziz.
- Egoera komunikatiboa kokatzea (hizlariak, hartu-eman motak).
- Solaskideek zer dakiten eta zer ez baloratzea.
- Hartu-emanak prestatzea.
- Esaerak, lagunarteko esamoldeak, etab. buruz ikastea.

Burutzea

- Hizketaldi bat hasteko, jarraitzeko eta bukatzeko prozedura egokiak erabiltzea.
- Eztabaida batean parte hartzea eta esaera apropos batekin hitza hartzea.
- Laguntzea.
- Hizketaldi bat laburtzea, eta gaiaren fokalizazioa erraztea.
- Beste pertsona bat parte hartzera gonbidatzea.
- Modu aproposalan erantzutea keinuen eta ohiko adierazpenen bitartez.
- Laguntza eskatzea.

Ebaluatzea eta zuzentzea.

- Bi solaskideek mezua ulertu dutela egiaztatzea.
- Ideien garapena erraztea enuntziatuaren zati batzuk birformulatuz.

### ***Ikasketa prozesuaren estrategiak***

Ziur aski, zerrendatuko diren estrategietako asko erabiltzailearen hizkuntzak ikasteko prozesuan daude dagoeneko, modu kontziente zein inkontzientean. Orain, kontziente bihurtu behar dituzte, nahita erabiltzeko eta automatizatzeko, ikasketa arindu dadin.

### **Ikasketa-prozesuaz jabetzea.**

Batez ere, irakasleen aginduei itxaroten ohituta daudenei, euren baliabideak abian jartzen ez dituztenei eta ikasketa bera onartzen arriskatzan ez direnei zuzenduta daude.

- Hizkuntza berri hori ikasteko helburua eta interes orokorrak eta pertsonalak kontuan hartu behar dira.
- Nork bere behar eta interesak definitzea.
- Ikasketa-prozesuan protagonismoa onartzea.
- Hizkuntza bat nola ikasten den eta ariketa bakoitzak zertarako balio duen ulertzea.
- Bakoitzaren errentagarritasuna probatzea.
- Testu-liburuaren eta beste tresna didaktikoen egitura jakitea.
- Nork bere ikasketa era aztertzea.
- Teknika desberdinak probatzea.
- Hizkuntza erabiltzeko aukerak sortzea.
- Klase-kideekin harreman ona sortzea, eta taldean lan egiten eta praktikatzan laguntzea.
- Aurretiko esperientzia eta ezagutzetatik abiatzea.
- Erabilgarriak diren baliabideak hautatzea, eta modu eraginkorrean erabiltzea: telebista, irratia, Interneta, txatak, blog-ak, harremanak, testu-liburuak, gramatikak, hiztegiak, etab.

### **Motibatzea Jarrera baikorra Afektibitate-elementuak kontrolatzea**

Hizkuntzak ikastean arrakasta eragiten duten alderdiak motibazioarekin loturikoak dira. Irakaslearen jarrera eta sortzen den giroa, motibazio hori sortzeko gakoak dira.

- Hizkuntza ikasteko norberaren gaitasunean konfiantza izatea.
- Ikasketaren aurrean jarrera baikorra izatea.
- Hizkuntza berriaren benetan komunikatzeko motibatzea.
- Hizkuntza eta kultura berriaren aurrean jarrera baikorra izatea.
- Ezberdintasuna aberastasuntzat jotzea.
- Hizkuntza berria estimatzea eta sustatzea, klaseko adierazpen-tresna gisa.
- Komunikazioan arriskatzeko eta dituzten baliabideak erabiltzen saiatzea.
- Akatsei beldurra galtzea eta ikasteko beharrezkotzat jotzea.
- Antsietatea kontrolatzea.
- Hobetzeko interesa erakustea.
- Itxurazko geldialdiak gainditzea eta ez gogogabetzea.
- Urtean zehar zaletasunak aukeratzea, bai lan egiteko moduan, bai eta errefortzua behar duten gaietan eta alderdietan ere.
- Gehien interesatzen zaizkien alderdi soziokulturaletan eta hizkuntza arlokoetan sakontzea.
- Norberaren ezagutza-eskemak eta esperientziak hizkuntza berria ikasteko baliagarri direla onartzea.

- Baliabide linguistikorik ez izateak eragiten dituen zailtasunei aurre egiteko interesa erakustea, erabilgarri dauden ezagutza eta estrategiak ahalik eta ondoen baliatuz.
- Bere burua gaintzeko grina izatea, eta horretarako bitartekoak jartzea.
- Ongi egindako lanarekin gozatzea.

### **Lana planifikatzea. Helburuak lortzeko teknika eta prozedura eraginkorrenak identifikatzea.**

Ondoren aipatzen diren estrategiak nahitaezkoak dira ikasketa-helburuak eta norbanako bakoitzaren komunikaziora hurbiltzeko, hizkuntzak ikasteko funtsezko alderdietarako, alegia.

- Helburuak finkatzeko eta negoziatzeko ekimenez jardutea.
- Ariketa desberdinen helburuak hautematea.
- Gaiak eta edukiak aukeratzea.
- Nork bere ikasketa-interesak eta beharrak adieraztea.
- Helburuak lortzeko teknika eta prozedura eraginkorrenak identifikatzea.
- Beharrezko materialak aukeratzea.

### **Berria jasotzeko bidea: elementu linguistikoak ulertzea hipotesi-prozesu baten bitartez.**

Ditugun ezagutza eta esperientzia guztiek adimen galdetzailea eta hipotesiak sortzea ahalbidetzen dute. Alderdi bi horiek, ikasketa-mekanismoaren bilaketa pertsonalaren parte dira.

- Aurretiko ezagutzak eta esperientziak aktibatzea, horien gainean eraikitzeko.
- Mezuen esanahia, hizlari baten litezkeen harreman linguistikoak eta zerbait helarazteko modua ondorioztatzea eta zalantzan jartzea.
- Behar izango den edo ikasi behar den egituraren gaineko hipotesiak sortzea.
- Dakitenetik abiatuta erlazionatzea, asmatzea edo ondorioztatzea.

### **Bilaketa eta arreta hautakorrak**

Hipotesia erkatzeko unea da hau, ereduakin konparatuz, sormenaren eragina baloratuz edo klase-kideei galdetuz. Egiaztatze horretan, zuzentzeko eta argitzeko beharra sortuko da.

- Ahozko eta idatzizko ereduak behatzea.
- Behar diren datuak aukeratzea.
- Puntu zehatz batetik abiatuta hizkuntzaren funtzionamendua aurkitzea eta asmatzea.
- Planteatutako hipotesiak erkatzea, zuzentzea edo egiaztatzea.
- Kontsulta-tresnak modu hautakorrean erabiltzea.
- Azalpenak eta argibideak eskatzea.
- Ama-hizkuntzarekin eta dakizkiten beste hizkuntzekin konparatzea.
- Ulermena bera kontrolatzea.

Praktikatzea. Bereganatzea, gordetzea eta berreskuratzea.

Praktika-estrategien zerrenda, funtzionalki zein formalki, irekita uzten da. Izan ere, ikasle, egoera eta lanen barietateak estrategia berriak dakartza, edo hemen eskaintzen direnak zehazten ditu.

- Praktikarako eta barneraketarako ariketa, teknika eta prozedura eraginkorrenak probatzea eta aukeratzea.
- Harremanak ezartzea.
- Oharretarako koaderno pertsonala eramatea.
- Eskemak, laburpenak eta zerrendak egitea.
- Klase-kideekin edo bakarka praktikatzea.
- Klase-kideen lana errespetatzea eta baloratzea.
- Ikasitakoa maiz erabiltzeko egoerak sortzea.
- Autokontrolerako ariketak egitea.
- Trebetasun bakoitza praktikatzea.
- Kopiatzea, errepikatzea, marrazkiak egitea, jolasak asmatzea, azpimarratzea, margotzea.
- Probak egitea.
- Loturak egitea: soinuzkoak, irudizkoak, zinetikoak, testudunak, formalak eta semantikoak.
- Abestiak, testuak, poemak eta esaldiak buruz ikastea.
- Nork bere akatsak kontrolatzea: “akatsak gainditzeko” koadernoak egitea, arrazioa eta hura gainditzeko modua jasoz.
- Birpasatzea.
- Klaseko egunerokoa idaztea.

### **Ebaluazioa, autoebaluazioa eta hobetzea**

Norberaren lana eta emaitza kontrolatzeko gaitasunak, aurretik xedeak finkatzea, bitartekoak aukeratzea, balorazio-irizpideak izatea eta hobetzeko modua aurreikustea eskatzen du.

- Autoebaluazio-saretak aplikatzea lorpen-, interes-, parte-hartze eta asebetetze-maila adieraziz.
- Klase-kideekin batera lan eta ariketa bakoitza ebaluatzeko irizpideak ezartzea.
- Nork bere lanak eta kideenak ebaluatzea, irizpide horietatik abiatuta.
- Zailtasunak eta horiek gainditzeko moduak markatzea.
- Nork bere akatsak kontrolatzea, eta helburuak eta hobetzeko prozedurak finkatzea.
- Norberaren ezagutzak eta gaitasunak frogatzea.
- Nork bere burua zuzentzea (klase-kideen edo irakaslearen laguntzarekin eta tresna didaktikoak erabiliz).